



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko apirilaren 22a

50. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da endometriosisia duten pertsonen arretarako protokolo bat eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan horretarako unitate bat sor ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu dute (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da LOMLOE legea garatzen duten curriculumari buruzko dekretuetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko mailetan sar dezan berdintasuna, bizikidetza, indarkeriarik eza eta bakea helburu dituen heziketa afektibo-sexualaren curriculum-espazio bat. Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkeztu du (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko konpromisoa hartzen du, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera. Domingo González Martínez jaunak aurkeztu du (6. or.).
- Erabakiak, soldata-arrakalak areagoturiko gizarte-desparekotasun gero eta handiagoaren analisiari, egoe-rari eta hari aurre egiteko neurriei buruzkoak. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hezkuntzaren Aldeko Mundu mailako Kanpainak sustaturiko #MilaMilioiAhots kanpainarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (10. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, iragarritako eguraldi txarraren ondoriozko arazoak gaintze aldera apirilaren 2ko asteburuan Larrabiden egindako jarduketei buruzkoa. Raquel Garbayo Berdonces andreak egin du (11. or.).
- Galdera, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatze aldera, etxebizitzaren egoeraren eta kudeaketaren gaineko hobari eta zigor fiskalak ezartzeari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro egin du (11. or.).

- Galdera, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren (AKZ) informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren mendeko beste polizia-zentro batzuekin koordinatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Guardia Zibila Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuekin koordinatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (13. or.).
- Galdera, Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza Caparrosoko abeltegitzarraz behar ez bezala erabiltzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (16. or.).
- Galdera, Lan Osasunaren Planari (2015-2020) eta Lan Osasunaren Ekintza Planari (2017-2020) buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (17. or.).
- Galdera, Espainiako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoak Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruko txosten batzuei buruz emandako irizpenari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (18. or.).
- Galdera, kontu-hartzailera delegatuak FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta emandako eragozpen-oharrari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (19. or.).
- Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean guztira jasotzen diren hobarien zenbatekoei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean aurreikusitako hobariak diru-sarrera fiskaletan eragin duten murrizketari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak kirol elektronikoen sektorea indartzeko duen estrategiari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, Atletismoko pista estali bat edukitzeko beharrari buruzkoa. Alberto Bonilla Zafra jaunak egin du (21. or.).
- Galdera, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea Nafarroan aplikatzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Erdiz alderdiko herri-lurretan MAGNA meatze-proiektua gauzatzearen inguruko herri-galdeketaari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuak osasun arloan egindako 2021eko gogobetetasun-inkestari buruzkoa. Cristina Ibarrola Guillén andreak egin du (24. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da endometriosisia duten pertsonen arretarako protokolo bat eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan horretarako unitate bat sor ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA, GEROA BAI ETA EH BILDU NAFARROA TALDE PARLAMENTARIOEK, NAFARROAKO PODEMOS-AHAL DUGU FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK ETA IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek, Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak eta Izquierda-Ezkerria talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita endometriosisia duten pertsonen arretarako protokolo bat eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan horretarako unitate bat sor ditzan (10-22/MOC-00038).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten talde parlamentarioek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko: Nafarroako Gobernua premiatzen da endometriosisia duten pertsonen arretarako protokolo bat eta Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan horretarako unitate bat sor ditzan.

Endometriosisia da umetokitik kanpoko eremuetan endometrioko ehuna modu onberan agertzea eta haztea. Gehienetan pelbisaren peritoneoan

eta obarioetan aurkitzen da, baina baita gorpuztaren beste toki batzuetan ere; esate baterako, hesteetan, gernu-maskurian, sabelean, biriketan eta abar. Ehun hori hilekoaren zikloko hormonen arabera garatzen da, eta umetokiko arauzko mukosak bezala, modu ziklikoan eboluzionatzen dute eta odoljarioak sortzen dituzte. Gaixotasun kronikoa da eta oraindik ez da aurkitu zergatik garatzen den, nolabaiteko aurrejoera genetikoa egiaztatu bada ere.

Zaila bada ere gaixotasunaren prebalentzia zehatza ezagutzea, uste da endometriosiak ugaltzeko adinean dauden emakumeen % 10ak gutxienez (% 10-15) pairatzen duela. Agerpen klinikoak desberdinak izan daitezke pertsona batetik bestera, sintomarik gabeko emakumeetatik hasita modu lazgarri eta kronikoetara, min handiarekin eta/edo horrekin loturiko antzutasunarekin. Kasu horietan ebakuntzak egin behar izaten dira eta ez da sendabiderik lortu. Emakume askorentzat endometriosisia prozesu kroniko eta errepikakorra da, halako moduz non zenbait gaixorentzat gaixotasun kroniko eta baliaezintasun-eragiletzat har baitaiteke, bereziki endometriosi larriena, endometriosi sakon bezala ezagutzen dena, pairatzen duen azpitaldearentzat.

Sintometan oinarritutako diagnosia zaila izaten da beste prozesu batzuei gainjartzen zaizkielako, sintomak askotarikoak izan daitezkeelako edota emakumeek oro har normaltzat hartzen dutelako hilekoa mingarria izatea. Endometriosiaren diagnosia berandutu egiten da askotan. Sintomen hasieratik diagnosira arte 7 edo 8 urte pasa daitezkeela uste da.

Gaur egun asko dago aurkitu eta ikertzeko; izan ere, oraindik ez da aurkitu zergatik garatzen den endometriosisia eta ez dago sendabiderik,

baina bai sintomak eta ebakuntza ondoko berragertzeak gutxitu ditzaketen terapiak edo sintoma horien aurrerabidea aldi baterako eten dezaketenak. Dena den, garrantzitsua da diagnosi goiztiarra egitea.

Beharrezkoa da Nafarroan laguntza-estaldura ematea endometriosisia duten pazienteei. Horretarako, beharrezkoa da Oinarrizko Osasun Laguntzarekiko koordinazioa sexu- eta ugalketa-osasunaren arretarako zentroetarako deribazioari dagokionez, eta ezartzea kasu zailak, diziplina anitzeko tratamendu kirurgikoa behar dutenak, unitate espezializatu batean artatu behar direla.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

1.- Laguntzarako antolamendu-eredu bat osatzea endometriosisia izateko susmoa edo diagnosia duten emakumeentzat.

2.- Diziplina anitzeko endometriosisi unitate bat ezartzea Nafarroako Ospitale Unibertsitarioan.

3.- Endometriosisiaren detekzio goiztiarrerako protokolo bat ezartzea Nafarroako Oinarrizko Osasun Laguntzan eta Oinarrizko Osasun Laguntzako osasun-langileen prestakuntza hobetzea.

4.- Nafarroan dauden gaixoen erregistro edo errolda erreal bat osatzea.

5.- Endometriosisiaren genetikari eta tratamenduari buruzko ikerketa sustatzea.

6.- Endometriosisia dela-eta lanerako ezintasunak eta minusbaliotasun graduak zehazteko irizpi-deak aldatzea.

7.- Gaixotasun honi buruzko difusio-kanpainak egitea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 1ean

Foru parlamentariak: Patricia Fanlo Mateo, Ana Ansa Ascunce, Txomin González Martínez, Mikel Buil García eta Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da LOMLOE legea garatzen duten curriculumari buruzko dekretuetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko mailetan sar dezan berdintasuna, bizikidetzaren indarkeriarik eza eta bakea helburu dituen heziketa afektibo-sexualaren curriculum-espazio bat.

IZQUIERDA-EZKERRA TALDE PARLAMENTARIO MISTOAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita LOMLOE legea garatzen duten curriculumari buruzko dekretuetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko mailetan sar dezan berdintasuna, bizikidetzaren indarkeriarik eza

eta bakea helburu dituen heziketa afektibo-sexualaren curriculum-espazio bat (10-22/MOC-00039).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Legebiltzarreko hurrengo Osoko Bilkuran eztabai-datu eta bozkatzeko.

2016ko azaroaren 24an, Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko 103/2016 Foru Dekretua argitaratu zen. Dekretuaren 7. artikulua –Sexu- eta ugalketa-osasunaren arloko prestakuntza hezkuntza-sisteman– honako hau ezartzen du:

“Hezkuntza Departamentuak beharrezkoak diren neurriak garatuko ditu hezkuntza afektibo eta sexuala unibertsitatez kanpoko irakaskuntzetako curriculumean sartzeko, eta, beraz, ikastetxeko hezkuntza proiektuan ere, ikuspegi integral batekin, Sexu- eta Ugalketa-osasunari eta Haurdunaldiaren Borondatezko Etendurari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Lege Organikoaren 9. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, helburu hauek tarako lagungarria izan dadin:

a) Sexu- eta ugalketa-osasunaren eremuan bizipen positiboa eta jarduera arduratsua bultzatzea gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari eta erantzukizun partekatuari dagokienez.

b) Sexualitatea modu harmoniatsuan garatzea, bizitzaren etapa bakoitzean pertsonak bizi duten unearekin bat etorrita.

c) Sexu aniztasunaren aitortza eta onarpena sustatzea.

d) Nahi gabeko haurdunaldien eta abortuen prebentzioa.

e) Sexu-transmisiozko eritasunen eta infekzioen prebentzioa.

f) Indarkeria sexistaren eta sexu erasoen, abusuen eta esplotazioaren prebentzioa.

g) Talde edo sektore sozial ahulenen errealitatea eta beharrak aitortzea; adibidez, desgaitasuna duten pertsonenak.

h) Sexu aniztasuna eta identitatea, norberak sentitzen duen bezala, normaltasunez aitortu eta onartzea sustatzea, bai eta homofobiaren eta transfobiaren prebentzioa ere.

i) Amatasunaren inguruko balio sozialen aldatzea, aitaren inplikazio aktiboa eta zuzena sustatzeko xedeaz”.

Beste alde batetik, berriki argitara eman dira LOMLOE legea garatzen duten Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko gutxieneko irakaskuntzei buruzko errege-dekretuak, Nafarroak bere curriculum-autonomiaren % 30 erabiliz osatu beharrekoak: martxoaren 1eko 157/2022 Errege Dekretua, Lehen Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen; martxoaren 29ko 217/2022 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen eta apirilaren 5eko 243/2022 Errege Dekretua, Batxilergoaren antolamendua eta gutxieneko irakaskuntzak ezartzen dituen.

Pornografiaren kontsumoa, desberdinkeria-egoerak eta indarkeria matxista maiz agertzen diren gizarte batean guztiz beharrezkoa da da hezkuntzaren eremuan jardutea.

Ildo horretatik, presakoa eta funtsezkoa da unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako oinarrizko curriculumak honako eduki hauek edukitzera: herritartasun arduratsuari eta balio demokratikoe-tan hezteari buruzkoak, genero-desberdinkeria-egoeren ezagutza, emakumeen eginkizuna historian zehar eta herritar guztien eginkizuna gizarte bat eraikitzeke oinarri edukita gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna, harreman osungarri-rako heziketa afektibo-sexuala, indarkeriarik eza, bakea eta elkarbizitza helburu dituen heziketa.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du, bere eskumenen esparruan, LOMLOE legea garatzen duten curriculumari buruzko dekretuetan eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko mailetan sardezan berdintasuna, bizikidetzeta, indarkeriarik eza eta bakea helburu dituen heziketa afektibo-sexualaren curriculum-espazio bat (gaia/arloa/irakas-gaia).

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Eleduna: Marisa De Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko konpromisoa hartzen du, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera.

DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko konpromisoa hartzen baitu Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera (10-22/MOC-00040).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Nafarroako Alderdi Sozialistak, Geroa Baik, Podemos-Ahal Duguk eta Izquierda-Ezkerrak 2019-2023 Legegintzaldirako Programa Akordioa sinatu zuten eta bertan Osasun Departamenturako erronka batzuk biltzen ziren. Horietatik oraindik betetzeko daudenen artean konpromiso bat dago, "Osasunari buruzko Foru Lege berri bat taxutzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua eta Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutua modernizatuko dituen, kudeaketa autonomo-agoa, zaluagoa eta efizienteagoa egiteko gaitasun juridiko eta antolamendukoa eskainiko dituen eta egungo gizarte-errealitateei egokituko dena. Osasunari buruzko Foru Lege berri horrek beste alderdi batzuen artean kontuan hartuko ditu, halaber, osasun-hezkuntza eta ingurumen- nahiz lan-osasuna"

Hori guztia dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

- Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Osasuneko Batzorde Berezi bat sortzeko, Osasunari buruzko Foru Lege berri baterako oinarriak adostu eta finkatze aldera.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

Erabakiak, soldata-arrakalak areagoturiko gizarte-desparekotasun gero eta handiagoaren analisiari, egoerari eta hari aurre egiteko neurriei buruzkoak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkurak, 2022ko apirilaren 8an egindako bilkuran, behean jasotzen diren erabakiak onetsi zituen, soldata-arrakalak areagoturiko gizarte-desparekotasun gero eta handiagoaren analisiari, egoerari eta hari aurre egiteko neurriei buruzko Osoko Bilkura monografiko bereziaren harira.

Argitara daitezela agintzen dut, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan eza-rritakoa betez.

Iruñean, 2022ko apirilaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakiak, soldata-arrakalak areagoturiko gizarte-desparekotasun gero eta handi- diagoaren analisiari, egoerari eta hari aurre egiteko neurriei buruzkoak

Lehena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-
a premiatzen du:

1.- Lehenasuntzat ezar dezan eraldaketa digital eta ekologiko justuak egitea, balio katea osoa eta enpresa mota guztiak aintzat hartuta, eta berma dezan langileak moldatzeko eboluzio ordenatua, oinarrian izanen duena lanaren eta lanbide gaitasunen birziklapena.

Horretarako, Nafarroako Gobernuak 2021-2025 aldirako Inklusio eta Gaikuntza Digitalerako Plana garatzen jarraitu behar du, bereziki ahaleginduz langileen gaikuntza digitalean eta birkualifikazioan.

2.- Lan egin dezan gure ekoizpen ehuna modernizatzeko, berrikuntzarako eta digitalizaziorako trantsizio justua dela medio, batez ere autonomoei, enpresa txiki eta ertainei eta sektore estrategikoei begira.

3.- Jarrai dezan honako hauek bultzatzen: energia berriztagarrien sorkuntzarako instalazio berriak; eraginkortasunaren eta efizientziaren hobekuntza erabileran nahiz kontsumoan; autokontsumoko eta sorkuntza banatuko elkarten sustapena; eta mugikortasunaren zein indus-

triaren eraldaketa, energia berriztagarriak erabiltze aldera.

4.- Bultza dezan ekintzailtza kooperatiboa eta ekonomia sozial eta solidarioari lotua.

5.- Azter dezan zer aukera dagoen Interneterako sarbidearen premia gizarte-bonuan definitutako oinarritzko premien sortan sartzeko.

Bigarrena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-
a premiatzen du:

1.- Jarrai dezan apustu egiten alokatzeko etxebizitzaren sustapen publikoaren alde eta neurritzko alokairuko etxebizitza publikoen gehikuntzaren alde, pertsona guztiek etxebizitzarako duten eskubideari erantzuteko.

2.- Biziagotu dezan toki entitateekiko elkarlana, hiri-jasangarritasunaren printzipioak inplementatzeko, eta birgaitze energetikoko proiektuak sustatzeko erakin publikoetan nahiz pribatuetan.

3.- Adin muga gero eta gorago jar dezan harik eta 2023an 35 urtekoa izan arte, gazteentzako etxebizitzak alokatzeko laguntzen EmanZipa programara biltzeko baldintza gisa.

4.- Etxebizitza babestuen saleroste eragiketetan lehenasunez erosteko eta atzera eskuratzeko eskubidea baliatzeko aurrekontu-partida handitzen jarrai dezan, etxebizitza-parke publikoa handitzeko eta haren berariazko erabilerak ugartzeko Etxebizitza Sozialen Foru Funtzaren programan.

Hirugarrena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-
a premiatzen du:

1.- Plan bat gara dezan "kohesiorantzko ekitatezko ikuspegia" koordinatzeko eta garatzeko, zeharka, Nafarroako agenda politiko eta sozialean ekitatea eta gizarte kohesioa leheneste aldera. Horretarako, honako hau egin beharko du:

a. Helburuak eta joko arauak zehaztu; politika sektorialak integratu, ikusmolde orokor eta zeharkakoarekin, GJHetako eta hiri agendetako postulatuei loturik; eta bere gain hartu trantsizio anizkoi-

tza, ekologian, ekonomian, gizartean eta kulturaren gauzatu beharrekoa.

b. Elkarrekin koordinatu departamentuak eta, S4 Estrategiarekin bat etorri, 2030 Estrategia, enplegu, etxebizitza eta eskualde planak eta behatoki eta agentzia guztiak (Nastat, Gizarte Errealitatearen Behatokia, landa garapeneko plana, Lursarea agentzia eta Lurralde Estrategiaren Behatokia).

c. Nafarroako Parlamentua kohesiorako ekitatezko ikuspegiaren batzorde batekin integratu.

d. Udalak integratu.

e. Komunikazioa ezarri gizartearekin eta gizarte eragileekin.

2.- Zergen bidez ISO 50001 nazioarteko arauaren ezarpena susta dezan, bai eta langileen prestakuntza ere, arau hori ezartzen duten erakunde eta enpresetan.

Laugarrena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiatzen du:

1.- Lan merkatuan dauden arrakala soziala eta genero-arrakala txikitu ditzan, enplegu politika aktiboak erabiliz, genero-zeharkakotasuna aplikatuko dutenak eta lan merkatuan txertatzeko zailtasun handienak dituzten kolektiboek mesede egiten dietenak, aukera berdintasuna sustatuz.

2.- Berdintasunezko prestakuntzarako pizgarriak ezar ditzan genero-arrakala handiena duten lanbideetan eta emakumeak gutxiegi ordezkatuta dauden sektoreetan.

3.- Zainketen arloko lanek Nafarroako gizarteari egiten dizkioten ekarpenen balioa nabarmendu dezan, eta halako lanen profesionalizazioa, langileen kualifikazio etengabea eta lan baldintzen duintzea susta ditzan.

4.- Jarrai dezan apustu egiten Lanbide Heziketa Duala sustatu eta garatzearen alde, funtsezko tresna baita gure hezkuntza sistema modernizatzeke, lan irtenbideak eskariei egokitzeko eta gazteei aukera gehiago eta hobekak emateko.

5.- Bultza ditzan plantillen gaztetzea eta ezagutzaren transmisioa enpresetan, errelebo-kontratuaren sustapena dela bide; berreskura dezan prestakuntzarako eta ikaskuntzarako kontratuaren izaera hezitzailea; eta praktiketako kontratua indartu dezan, ikasketak amaitu berri dituztenak eskubideekin laneratzeko formula gisa.

6.- Aukera berdintasuna susta dezan enpresaren arloan, kristalezko sabaia eta zoru itsaskorra

deritzen fenomenoak eragoztera eta soldata arrakala murriztera bideratutako neurriekin.

7.- Enpleguaren eta lan merkatuaren bilakaera azter eta identifika dezan egungo arrakalekin eta aukera berdintasunarekin lotuta.

8.- Gizarte eta enpresa ehunarekin batera lan egin dezan parte-hartze zabalagoko gizarte eta enpresa eredu baterantz eboluzionatzeko, zeinak aintzatasuna izanen baitu oinarrian.

Bosgarrena

Nafarroako Parlamentuak:

1.- Apustu egiten du zerbitzu publikoetarako inbertsioa eta bereziki hezkuntza arlokoa lehenesten alde, gizarte kohesioa, inklusioa eta berdintasunen konpentsazioa lortzeko eragile gisa, behar diren egiturazko neurriak hartuz eskola segregazioa eragozteko.

2.- Uste du 0-3 urteko Haur Hezkuntzako lehen zikloa giltzarri dela eskola porrotaren prebentzioan, eta Nafarroako Gobernuari premiatzen du hura orokortu dezan, plaza publikoen eskaintzaren gehikuntza funtsezko eta progresiboaren bidez eta doakotasuna lehenbailehen bermatuz.

3.- Nafarroako Gobernuari premiatzen du berma ditzan landa eskolaren iraupena eta indarberritzea, horretarako behar diren giza baliabideak eta materialak jarri, landa eskola garapenaren, gizarte eta lurralde kohesioaren eta aukera berdintasunaren zutabea baita.

4.- Nafarroako Gobernuari premiatzen du Nafarroako hezkuntza etengabearen plan orokor bat taxutu dezan, eraginkortasunez erantzunen diena pertsonak bizitzan zehar prestakuntzarako, kualifikaziorako eta birkualifikaziorako izaten dituzten premiei.

Seigarrena

Nafarroako Parlamentuak:

1.- Fiskalitatea ezinbesteko tresnatzat dauka aberastasuna birbanatzeko, eta Nafarroako Gobernuari premiatzen du eztabaida abiaraz dezan fiskalitate askoz ere progresiboago eta zuzenagoa ezartzeko, gizarte aurreratuagoa duten Europako herrialdeetan dagoen presio fiskalera hurbilduz.

2.- Nafarroako Gobernuari premiatzen du fiskalitate berri horretan alderdi berritzaileak sar ditzan, hala nola: trantsizio ekologikoa eta garapen ekonomiko jasangarria ahalbidetzen dituzten neurriak; diru-sarreretan generoak duen eragina aztertu eta hura borrokatzen laguntzen duten neurriak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunera jotzen duen zerga sistema baterantz aurrera eginez;

edota kalitatezko zerbitzu publikoak bermatzeko eta gizarteko sektore zaurgarrienen premia gero eta larriagoei aurre egiteko nahikoa baliabide bermatzen dituzten neurriak.

Zazpigarrena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ditu:

1.- Neurri eraginkorrak gara ditzaten, etxeko langileak abusuzko jardunbideetatik babesteko.

2.- Kontratuak, kexak, abusuak eta iruzurrezko jardunbideak ikuskatzeko mekanismoak eta prozedurak ezar ditzaten.

3.- Aplikatu eta gara dezaten, beren eskumeneko eremuetan, Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. Hitzarmena (2011), behin Espainiako Estatuak hura berretsitakoan, Ministroen Kontseiluak dagoeneko erabaki duen bezala. Hitzarmen horrek etxeko langileentzako lan duina arautzen du, langabezia babesteko betebeharra barne dela.

4.- Lan arloko legeria alda dezaten, lanaren eta gizarte segurantzaren arloko eskubideei dagokien etxeko langileak gainerako langileekin parekatzeko.

5.- Berma ditzaten negoziazio kolektiborako esparru bat, sektoreak bere hitzarmena izateko, eta ezkutuko enpleguan jarraitzen dutenen erregulazioa.

Zortzigarrena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du:

1.- Gizonen eta emakumeen arteko ordainsari-berdintasunari buruzko foru lege bat presta dezan, helburu hauei begira:

– Lan Ikuskatzaitzak enpresen berdintasun planen kontrola eta jarraipena egitea, eta berdintasun planak ezartzeari eta/edo erregistratzeari buruzko araudia urratzen duten enpresei zehapen gogorragoak ezartzea.

– Neurriak erabakitzea, genero-irizpideetan oinarrituta dauden edota emakumeen kalterako diren diskriminazio eta desberdinkeriazko egoerak ezabatze aldera eta gizonen eta emakumeen arteko benetako berdintasuna sustatze aldera; neurriok sektoreetako eta enpresetako hitzarmen kolektiboetan jasotzea sustatu behar da, bai eta hitzarmenak erregistratzea ere, haien jarraipena bermatzeko.

– Emakumeen lanbide sustapenerako planak bultzatzea: jarduketak ezartzea kategoriala eta jardura-aldaketak sustatzeko; ordainsari-desberdintasunak ezabatzea; lanaldi aldaketak erraztea, lanaldi partzialetik lanaldi osora aldatu ahal izateko (edo alderantziz).

2.- Laguntza neurri horizontalak indartzea, inbertsio handiagoa eginez gizarte azpiegitura publikoetan, haur eskola publikoetan, mendekotasuna duten pertsonentzako arreta publikoan edo familiei laguntzeko plan integraletan.

3.- Genero-eraginari buruzko txosten bana egitea enplegu planean jasotako neurrietarako.

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bat egiten baitu Hezkuntzaren Aldeko Mundu mailako Kanpainak sustaturiko #MilaMilioiAhots kanpainarekin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, honako adierazpen hau onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Hezkuntzaren Aldeko Mundu mailako Kanpainak sustaturiko #MilaMilioiAhots kanpainarekin.

2. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan, hezkuntzarako aurrekontuaren igoerak ziurtatzeko, pertsona eta talde ahulenentzako lehentasunarekin, eta hezkuntza bermatzeko giza eskubidea den aldetik.

3. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du bere eskumenen esparruan jarduteko, gutxien garaturiko herrialdeen zorra arintzea xede, hezkuntza bezalako oinarrizko zerbitzu publikoetan inbertitzeko neurri pizgarriak barne harturik.

4. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du sustatzen jarraitzeko Nafarroak garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko solidaritatearen alorretan darabilen politika, herrialde txirotuetakomunitateetan giza garapena aldezte aldera eta larrialdi humanitarioko egoeren ondoriozko efektuak arintzen laguntze aldera, bai eta Nafarroan herritartasun globalerako sensibilizazioko eta hezkuntza eraldatzaileko urratsak egiteko. Hori guztia, komunikazio- eta partaidetza-bideak mantenduz Parlamentuaren eta garapenerako lankidetzan nahiz nazioarteko

solidaritate-zereginetan Nafarroan etengabeko lanean diharduten garapenerako gobernu kanpoko erakundeen, kolektiboen eta erakundeen artean.

5. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du, bere eskumenen esparruan, lanean ari zeko garapen jasangarrirako helburuen 2030 Agendako helburuak lortzearren; oso bereziki, hezkuntza-helburuak, bai eta hezkuntza eraldatzailea, eta bakearen eta gizarte kohesioaren sustatzailea dela zaintzeko ere.

6. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du irakaskuntzako langileei behar bezalako arreta emateko, eskerrak emanez pandemian zehar hezkuntza-ondorioak arintzeko egindako ahaleginagatik, haiek gabe ezin izanen baita lortu kalitatezko hezkuntza ekitatibo eta inklusiboa gure eskoletan.

7. Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du ikastetxeei eremu seguru gisa aitortza egiteko eta errespetatzeko, komunitate osoak segurtasunez ikasi eta irakatsi ahal dezan bermatzen baitute, hezkuntzarako eskubidea zainduz, pertsona guztiendako aukera-berdintasunean, edozein direla ere adina, generoa, erlijioa, gizarte klasea edo gaitasun desberdinak”. (10-22/DEC-00019).

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

Galdera, iragarritako eguraldi txarraren ondoriozko arazoak gainditze aldera apirilaren 2ko asteburuan Larrabiden egindako jarduketei buruzkoa.*RAQUEL GARBAYO BERDONCES ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Raquel Garbayo Berdonces andreak aurkeztutako galdera, iragarritako eguraldi txarraren ondoriozko arazoak gainditze aldera apirilaren 2ko asteburuan Larrabiden egindako jarduketei buruzkoa (10-22/POR-00167).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Kultura eta Kiroleko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Raquel Garbayo Berdonces andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Kultura eta Kiroleko kontseilariak Batzordean ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Kirolaren Institutuak zer jarduketa egin zituen Larrabiden apirilaren 2ko asteburuan iragarritako eguraldi txarraren ondoriozko arazoak gainditze aldera?

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Raquel Garbayo Berdonces

Galdera, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatze aldera, etxebizitzaren egoeraren eta kudeaketaren gaineko hobari eta zigor fiskalak ezartzeari buruzkoa.*MAIORGA RAMÍREZ ERRO EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro aurkeztutako galdera, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatze aldera, etxebizitzaren ego-

eraren eta kudeaketaren gaineko hobari eta zigor fiskalak ezartzeari buruzkoa (10-22/POR-00168).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, urriaren 21eko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Etxebizitzari buruzko legea eta haren helburuak lortzeko neurri fiskalak hartzea direla-eta, hauxe jakin nahi dut:

• Zein da Nafarroako Gobernuaren jarrera, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatze aldera etxebizitzaren egoeraren eta kudeaketaren gaineko hobari eta zigor fiskalak ezartzeari dagokionez?

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren (AKZ) informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren mendeko beste polizia-zentro batzuekin koordinatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren (AKZ) informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren mendeko beste polizia-zentro batzuekin koordinatzeari buruzkoa (10-22/PES-00110).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Sinatzen duen parlamentari honen 10-21/PES-00388 ekimenari erantzutean, Lehendakari-zako Departamentuak honako hau adierazi zuen:

“Bada larrialdien eta segurtasunaren kudeaketaren arloan parte hartzen duten administrazioen arteko kontsentsu bat, herritarren eskari bati erantzunez guztiek bilatzen baitituzte erantzun eragin-

korrenak, beren eskumeneko esparruan esku hartzen duten eragile guztien lankidetzatik eta baliabideen koordinaziotik abiatuta.

(...) Hain zuzen ere patruila guztien geolokalizazioa garatuko da, Nafarroako Segurtasun Bartzordean 2011ko urriaren 18an sinatu zen erabakiaren itzalpean (...) Alderdi guztiek nahi dute Foru Komunitatean diharduten kidegoetako polizia patruilen geolokalizazioa eduki, horrek bermatuko baitu erantzun egokia ematea, hurbiltasuna, espezialitatea eta baliabideen eskuragarritasuna oinarri.

Polizia indar guztietako patruilen lokalizazioa izanen luke Aginte eta Koordinazio Zentroak, eta erreplika bana izanen litzateke Guardia Zibilaren eta Polizia Kidego Nazionalaren telefonogunee-tan. Gaur egun zehaztapen teknikoaren prozesuan ari dira Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua elkarlanean, eta laster inplementatuko da, 2022. urtean”.

Parlamentari honek jasotako informazioen arabera, Nafarroako Gobernuko eta Barne Arazoetako Ministerioko zerbitzu teknikoaren artean lanean ari dira garatze aldera geolokalizazioa partekatze-proiektu hori, bai eta gertaeren gaineko datuak eta informazioa igortzea eta eskualdatzea ere, 112 telefonoaren bidez sartu eta zuzenean beste polizia-zentral batzuen esku-hartzea eskatzen dutenean, halako moduz non horiek ezagutuko duten, denbora errealean, 112tik Foruzaingoko AKZra igortzen den informazioa.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Egia al da, polizia patruilen geolokalizazioaren bidezko koordinaketaz gain, lanean ari dela, polizia-zentralak, Guardia Zibilekoak (062) zein Polizia Nazionalekoak (091) denbora errealean irits daitezten Foruzaingoko AKZren sistema informatikoan agertzen den informaziora?

2.- Baiezkoan, izan al da horri begirako akordio berriren bat, orain arte aurreikusi gabea, eta nork hartu du?

3.- Zer informazio mota eskualdatu nahi da polizia-zentral horietara eta zer kasu edo egoeratan?

4.- Informazio eskualdaketa hori norabide guztietan ibiliko al da, alegia, Foruzaingoko AKZtik gainerako polizietara eta, era berean, haietatik Foruzaingoko AKZra, edo norabide bakarrekoa izanen al da, AKZk aukerarik eduki gabe 062 eta 091ko informaziora baldintza beretan iristeko?

5.- Informazioa Barne Arazoetako Ministerioaren menpeko polizia-zentral horien zerbitzuan denbora errealean jarriz gero, aurreikusi al da jarduketa eta koordinazio protokoloen bat ezartzea edo itzuliko al da gara garai zaharretara, alegia, “gertalekura lehen iristen denak balizko atestatuen instrukzioarekin geratzen da” horretara?

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Guardia Zibila Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuekin koordinatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Guardia Zibila Nafarroako Gobernuko larrialdi zerbitzuekin koordinatzeari buruzkoa (10-22/PES-00111).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Aspalditik datorren arazoa da Guardia Zibilak informaziorik ez ematea edo hura ez aktibatzea Nafarroako Gobernuaren menpeko larrialdietako zerbitzuentzat, askotan halako egoeratan non hori

betebehar argia izan beharko zen, bereziki desagertutako pertsonen kasuan.

Azkenaldi honetan informazio ezaren egoera horietako batzuk izan dira Nafarroako larrialdietako zerbitzuekin, non ukitutako pertsonendako arriskuaz ere hitz egin genezakeen, hori guztia Guardia Zibila tematu delako arriskuko egoerak beraren baliabideak erabilita konpontzen saiatzeaz.

Desagertutako pertsonak —bereziki adindunak edo gaixoak edo mendian edo ingurunean galdutakoak direnean— bilatzeko dispositiboek eskura dauden baliabide guztien kolaborazioa eskatzen dute, zenbat eta gehiago orduan eta hobe, egoera horien arrisku handiagatik.

Egun Nafarroan indarra duen protokoloa, desagertutako pertsonen kasuetan, ohar horiek 112 zenbakiaren bidez sartzen direnean, argia da: gaian eskumena duten zerbitzu guztiei bidaltzen zaie oharra, Guardia Zibilaren Zerbitzuetarako Zentro Eragilea barne. Baina hori ez da gertatzen oharra Guardia Zibilaren zentralera iristen denean. Izan ere, behin baino gehiagotan zentral horretatik ez zaie oharra bidaltzen Nafarroako Gobernuko larrialdietako zerbitzuei, edo berandu egiten da. Ez dugu ahaztu behar larrialdietako zerbitzu horiei dagokiela eskura dauden baliabide

onenak mugiarazteko eskumena, bai eta gaiaren gaineko eskumena, oro har.

Arlo honetan Guardia Zibilak izan dituen azken jarduketek agerian utzi dute larrialdietako egoeretan informazioa kontrolatzeko tema hori.

Halatan, egiaztatu ahal izan da otsailaren 4an Zangozan desagertutako pertsona baten kasua, geroago hilik agertu zena, non Guardia Zibilak bilaketarako dispositibo bat antolatu zuen soilik beraren baliabideak erabilia, eta orduak behar izan zituen informazioa emateko Nafarroako Gobernuko zerbitzuei, biharamunera arte aktibatu ez zirenak.

Aipatzekoa da, halaber, Hiru Erregeen Mahaian berriki desagertutako mendizale baten kasua. Guardia Zibilak martxoaren 15ean, asteartearekin, aditzera eman zuen dispositibo bat antolatu zela Huescako Guardia Zibilaren aldetik, baina Nafarroako erreskate zerbitzuak suhiltzaileen bidez aktibatze eskaintzak eta errekerimenduak egonda ere, hainbatetan egin zioten uko Nafarroatik jarduteari, eta azkenean Nafarroako suhiltzaileek, biharamunean, nafar aldean bilaketa hasi ondoren hilik aurkitu zuten, bigarren gauean.

Guardia Zibilaren jokabide hori maiz gertatzen da, eta ez bakarrik gisa horretako egoeretan. Adibide dugu 2022ko urtarrilaren 21ean argitaratutako berria, non azaltzen baitzen emakume bat "askatua" izan zela balkoian harrapatuta geratu ondoren, haren haurra etxebizitzan bakarrik zegoen bitartean. "Askapen" hori Guardia Zibileko agenteek burutu zuten, lekuan zehar zebilen ingeniari baten laguntzarekin, azaldu baitzien "ateak irekitzeko ezagupenak zituela", Nafarroako Suhiltzaileei berehala deitu ordez, haiek baitira horiek bezalako jarduketak egiteko baliabideak dituztenak, Guardia Zibilak zalantzarik gabe ezagutuko duenez.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Ohikoa al da Guardia Zibilak larrialdiko egoerak ezagutzen dituen bere kasa aktibatzea dituen baliabideak, Nafarroako Gobernuko larrialdiko zerbitzuak (112) kontuan hartu gabe?

2.- Zein dira Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiak ezagutzen dituen kasuak, bere menpeko larrialdi zerbitzuei alde aurretik jakinarazi gabe Guardia Zibilak baliabide berekiak aktibatzearen jarduketei buruzkoak?

3.- Egia al da 2022ko otsailaren 4an Guardia Zibilak dituen baliabideak aktibatu zituela Zangozan desagertutako pertsona bilatzeko eta biharamunera arte ez zuela eman larrialdiko egoera horren berri? Noiz jasotzen da Nafarroako 112 zerbitzuan desagerpen horri buruz informatzeko Guardia Zibilaren deia?

4.- Egia al da, halaber, Hiru Erregeen Mahaian desagertutako mendizalearen kasuan Guardia Zibilak bilaketarako dituen baliabideak Nafarroako 112 zenbakiari ohartarazi gabe aktibatu zituela? Zenbat denbora iragan zen Guardia Zibila egitatearen jakitun izan zenetik hura Nafarroako larrialdietako zerbitzuei aditzera eman arte? Noiz jasotzen da Nafarroako 112 zerbitzuan desagerpen horri buruz informatzeko Guardia Zibilaren deia?

5.- Egia da, halaber, mendizale horren desagerpenean, Nafarroako erreskate zerbitzuak Nafarroako Suhiltzaileen bidez aktibatze eskaintzak eta errekerimenduak egonda ere, Guardia Zibilak hainbatetan egin ziola uko Nafarroatik jarduteari?

6.- Zer neurri hartuko ditu Nafarroako Gobernuko Barne Zuzendaritza Nagusiak ekidite aldera egoera horiek berriro gerta ez daitezen eta Guardia Zibilak bete egin ditzan Nafarroan pertsonen desagerpenei buruz onetsita dauden protokoloak?

Iruñean, 2022ko apirilaren 4an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza Caparrosoko abeltegitzarraz behar ez bezala erabiltzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza Caparrosoko abeltegitzarraz behar ez bezala erabiltzeari buruzkoa (10-22/PES-00112).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Sinatzen duen parlamentari honen 10-21/PES-00209 ekimenari erantzutean, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak honako hau adierazi zuten:

“Ekoizpen ekologikorako kontrol-agintaritzaren adostasun-marken erabilera zuzena zaintzeko prozeduraren arabera, honako gorabehera hauek egiaztatu ditugu, Valle de Odieta SCL merkataritza-sozietatearen arau-haustea izan daitezkeenak:

Enpresaren publizitatean produkzio ekologikoari buruzko terminologia behar ez bezala erabiltzen dela hauteman da.

Egiaztatu da ez dela operadore gisa ageri CPAEN-NNPEK kontrol-agintaritzak ziurtatutako operadoreen erregistroan.

(...) 2021eko ekainaren 17an, ohartarazpen bat igorri zitzaion enpresari, eta ohartarazi zitzaion deskribatutako arau-haustea larri gisa tipifikatzen direla Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deituei eta adierazpen geografiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen 31. artikulua 1. apartatuaren f) letraren eta k) letraren arabera, ekoizpen ekologikoari

aplikatzekoa 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera”.

Aurrekoa gorabehera, 2021eko abenduaren 21ean El Día de Soria egunkariak erreportaje bat jasotzen zuen, “El Cierzo, bio-abeltegi eredu” titulupean. Bertan, Caparrosoko abeltegitzarren titular den Valle de Odieta SCL enpresako kudeatzaileak adierazten zuen “bio-abeltegia ekonomia zirkularreko kudeaketaren eta ekoizpenaren eredu bat” dela.

Gainera, “Valle de Odieta-Cooperativa agropecuaria” izenburuko informazio-koaderno batean, enpresa horrek Soriako Noviercas herrian ezarri gogo duen proiektua azaltzen duenean, “Historia” deitutako sarreran honako hau esaten da:

“Valle de Odieta SCL 1950ekoa da, baina Guerendiain eta Cilveti familiek 1983an erabaki zuten abian jartzea esnetarako behien lehen abeltegia eta garapenaren gailurrera iritsi da egun Caparrosen den bio-abeltegiarekin (...)”

Ondotik, “Bienestar animal” epigrafearekin, honako hau adierazten du:

“(...) Valle de Odieta SCL kooperatibak dagoneko ziurtagiri hori dauka Nafarroako Caparrosen duen “El Cierzo” bio-abeltegian”.

Era berean, Diario de Navarra egunkariak, 2022ko otsailaren 23ko alean, Valle de Odieta SCLk argitaratutako prentsa-ohar bat atera zuen, Caparrosoko abeltegitzarrean sartzan ari zen elikagai-gehigarri bati buruzkoa, non honako hau azaltzen zen:

“Era horretan, bio-abeltegia ustiategi aitzindari bihurtzen da (...)”.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak gertakari horiek eta lehenago aipatutako argitalpenak ezagutzen ditu, ekologia eta ingurumen arloko zenbait kolektibo eta eragile sozialek igorritako idazki batean horrela jakinarazi ziotelako.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Kontuan hartuz Valle de Odieta SCL oraindik ere ari dela “Enpresaren publizitatean produkzio ekologikoari buruzko terminologia behar ez

bezala erabiltzen”, Departamentuak egiaztatu zuen bezala, eta 2021eko ekainaren 17an horren gaineko ohartarazpena egin zitzaionez, sinatzaileari erantzun zitzaionaren arabera, Departamentuak uste al du Caparrosoko abeltzaintzako instalazioaz “bio-abeltegia” hitzaren erabilera desegokian berrerortze horregatik zehapen-prozedura bat ireki ahalko litzatekeela?

2.- Ezezkoan, zer jarduketa edo erabaki aurreikusten du Departamentuak, ekidite aldera Valle de Odieta SCLk “bio-abeltegia” hitza erabiltzea prentsa-oharretan zein publizitateko liburuxketan edo prentsarako adierazpen publikoetan? Izan ere, sinatzaileari erantzun zitzaionaren arabera, jokabide horiek arau-haustekak izan zitezkeen, larri gisa tipifikatzen direnak Autonomiaz gaindiko lurralde-eremuetako jatorri deituei eta adierazpen geogra-

fiko babestuei buruzko maiatzaren 12ko 6/2015 Legearen 31. artikularen 1. apartatuaren f) letraren eta k) letraren arabera, ekoizpen ekologikoari aplikatzekoa 2016rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 29ko 1/2016 Foru Legearen hogeita bederatzigarren xedapen gehigarriaren arabera.

3.- Valle de Odieta SCLri enpresaren publizitatean produkzio ekologikoari buruzko terminologia behar ez bezala erabiltzeari buruz berriro ohartarazi baino ez da egingen, edo beste erabaki batzuk hartuko al dira, ekidite aldera merkataritza-sozietate horrek entzungor jarrai dezan Departamentuaren ohartarazpenen aurrean?

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari buruz Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera (10-22/PES-000113).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Joan den legegintzaldian Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeko zirriborro bat egoteari buruzko galdera idatziari (10-21-PES-00307)

erantzunez, Osasuneko kontseilariak zera adierazi zidan: “Osasun Departamentuak ez du hain justu Osasunari buruzko Foru Lege berriaren zirriborrorik 2015etik 2019ra bitarteko legegintzaldiaren fruitu. Badira zenbait lan-elementu —ez dira ez barnean ez kanpoan adostuak— arau hori prestatzeko oinarri sendoak izan daitezkeenak, kasua bada”.

Hala ere, aurreko Osasun kontseilari izan zenaren aldetik, 2019ko martxoan legegintzaldiaren balantzea egiteko parlamentuko agerraldi batean, eta aurreko gobernuko alderdien aldetik ere, hainbat aldiz esan da publikoki Osasunari buruzko Foru Legearen aldaketa oso aurrerata zegoela.

1- Zer dokumentu daude zehazki, aurreko legegintzaldian prestatuak, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari dagokionez?

2- Dokumenturen bat al dago, zirriborroa bada ere, legegintzaldi honetan prestatua, Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari dagokionez?

3- Zer aurreikuspen du Osasun Departamentuak, legegintzaldi honetan Osasunari buruzko Foru Legea aldatzeari dagokionez?

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Lan Osasunaren Planari (2015-2020) eta Lan Osasunaren Ekintza Planari (2017-2020) buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Lan Osasunaren Planari (2015-2020) eta Lan Osasunaren Ekintza Planari (2017-2020) buruzkoa (10-22/PES-00114).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

2022ko apirilaren 4ko Osasun Batzordean Osasuneko kontseilariak, Lan Osasunaren Plana dela-eta, adierazi zuen UPNk bere azken legegintzaldiaren amaieran onetsi zuen plana abiarazten zaila gertatu zela eta geroago Lan Osasuneko

Ekintza Plana (2017-2020) prestatu zela, desegokitzat jo ziren zenbait adierazlerekin.

1- Zer gai zehatzetan iruditzen zaio Osasun kontseilariari Lan Osasunaren Plana (2015-2020) abiarazten zaila dela?

2- Zer adierazle zehatz iruditzen zaio desegoki eta Lan Osasunaren Planeko (2015-2020) edo Ekintza Planeko (2017-2020) zer dokumentu zehatzetan?

3- Orain arte eta Osasun Departamentuko inongo dokumentu estrategiko edo planteamendutan, ez zen inoiz proposatu lan osasunaren plana edo lan osasuneko ekintza plana aldatzea edo berri bat egitea aurrekoen indarraldia amaitu aurretik. Zergatik ez zenuen proposatu desegokiak iruditzen bazitzaizkizun? Zergatik itxoin duzu hain luze haiek aldatzeko, 2022ko apirilean gaudelarik eta lan osasunaren plan berri eduki gabe 2015etik, orduko plan hori kontseilariaren ustez aplikatzen zaila izaki?

4- Plan guztiak aldatzen diren inguruabarretara egokitu behar dira. 2015etik 2021era bitarte, Nafarroa da baja dakarten istripuen indizea gehien areagotu den erkidegoa. 2015-2020 Planari eta 2017-2020 Ekintza Planari buruzko hasierako balorazioa gorabehera, zergatik ez dituzue 3 urtetan zehar aldatu 3 aipatu planetan markatutako ildoak?

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Espainiako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoak Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruko txosten batzuei buruz emandako irizpenari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Espainiako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoak Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruko txosten batzuei buruz emandako irizpenari buruzkoa (10-22/PES-00115).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Joan den martxoaren 31n Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak –Espainiako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoari Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruko txosten batzuei buruz irizpen bat prestatzeko egindako mandatua dela-eta– Carlos Mulet senatariari emandako erantzunean adierazi zuen 2021eko ekainean aipatu elkargoak irizpena eman zuela, eta aipatu

“txostena helarazi zaiola bai Nafarroako Gobernuari bai eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoari ere, horren berri izan dezaten”.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1. Nafarroako Gobernuak noiztik du eskura Espainiako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoari Esa urtegia handitzeko obren segurtasunaren inguruko txosten batzuei buruz emandako irizpena?

2.- Zergatik ez du aditzera eman hura jaso izana? Izan ere, interes handiko gaia da Nafarroako iritzi publikoarentzat, bereziki urtegiaren eraginpeko eremuan, zehazki Zangozan eta haren inguruan.

3.- Nafarroako Gobernuak asmorik al du kopia bat igortzeko Zangozako Udalari eta urtegiaren eraginpeko eremuko beste batzuei, urtegia handitu eta, agian, bete ondoren presak izan dezakeen segurtasunaz kezka agertu duten horiei?

4.- Ikusirik Espainiako Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Lanbide Elkargoaren txostena, Nafarroako Gobernuak aurreikusi al du ekimenen bat hartzea Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekiko, hura Esa urtegia handitzeko obren ardura duen administrazioa den heinean?

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, kontu-hartzailtza delegatuak FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta emandako eragozpen-oharrari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, kontu-hartzailtza delegatuak FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta emandako eragozpen-oharrari buruzkoa (10-22/PES-00116).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuako Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen honek 2021eko martxoaren 11n egindako informazio-eskaerari (10-21/PEI-00194) emandako erantzunarekin batera Kontu-hartzailtza delegatuak FPP2 maskaren hornidura-kontratu bat dela-eta emandako eragozpen-oharra gehitzen zen, Kontu-hartzailtza Orokorra ebatzi gabe baitzuen.

Eginda al dago Kontu-hartzailtza Orokorren txosten hori?

Baiezkoan, zergatik ez dago jarrita Gobernu irekian?

Ezezkoan, zergatik ez du ebatzi Kontu-hartzailtza Orokorra?

Iruñean, 2022ko apirilaren 6an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén

Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean guztira jasotzen diren hobarien zenbatekoei buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean guztira jasotzen diren hobarien zenbatekoei buruzkoa (10-22/PES-00117).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Indarrean dagoen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen "Etxebizitzak errentan ematen diharduten entitateak" izeneko IV. kapituluari eta .92. eta 93 .artikuluei dagokienez, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

- Guztira jasotako hobarien zenbatekoak, ekitaldien arabera xehakatur, aipatu artikuluetan aurreikusitako hobariak ezarri ziren urtetik.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean aurreikusitako hobariak diru-sarrera fiskaletan eragin duten murrizketari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean aurreikusitako hobariak diru-sarrera fiskaletan eragin duten murrizketari buruzkoa (10-22/PES-00118).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Indarrean dagoen Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen "Etxebizitzak errentan ematen diharduten entitateak" izeneko IV. kapituluari eta .92. eta 93 .artikuluei dagokienez, parlamentari naizen honek hauxe jakin nahi dut:

- Aipatu artikuluetan aurreikusitako hobariak eragin duten diru-sarrera fiskalen murrizketa, ekitaldien arabera xehakaturata, hura ezarri zen urtetik hasita.

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Nafarroako Gobernuak kirol elektronikoen sektorea indartzeko duen strategiari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuak kirol elektronikoen sektorea indartzeko duen strategiari buruzkoa (10-22/PES-00119).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, idatziz erantzun dakion:

Zer estrategia eta/edo ekintza ari da garatzen Nafarroako Gobernuak kirol elektronikoen sektorea indartzeko?

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, Atletismoko pista estali bat edukitzeko beharrari buruzkoa.

ALBERTO BONILLA ZAFRA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Atletismoko pista estali bat edukitzeko beharrari buruz Alberto Bonilla Zafra jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00120).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Alberto Bonilla Zafra jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Kultura eta Kiroleko kontseilariak idatziz erantzun diezaion:

Departamentuarentzat lehentasun bat al da Nafarroan atletismoko pista estali bat edukitzea? Hala izanez gero, noiz egonen da eskura departamentuak iragarri zuen azterlana?

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Alberto Bonilla Zafra

Galdera, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea Nafarroan aplikatzeari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, enplegu publikoaren behin-behinekotasuna murrizteko neurri urgenteei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea Nafarroan aplikatzeari buruzkoa (10-22/PES-00121).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

2021 irailaren 16an, Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, sinatzen duen parlamentariak proposatuta, honako mozio hau onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, bere eskumenak erabiliz, hiru hilabeteko epean eta Funtzio Publikoaren Mahai Orokorrean negoziatu ondoren, foru lege proiektu bat aurkez dezan Parlamentuan, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutua —haren testua abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bitartez onetsi zen— aldatuko duena. Horrekin arautu nahi da Nafarroako administrazio publikoen zerbitzura hiru urte baino gehiago daramaten aldi baterako lan- eta administrazio-araubidez kontratatutako langileen egoera, eta horrela, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/70/EE Zuzentarauaren xedapenak eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren jurisprudentzia kontuan hartuta, administrazio publiko horietan behin-behinekotasuna hiru urteko epean % 8ra murriztuko da”.

Bitartean, argitara eman da Enplegu publikoan aldi baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legea, zeinaren hamargarren xedapen gehigarriak honako hau xedatzen duen:

“Foru erakundeetan aplikatzea.

Lege hau Nafarroako Foru Komunitateari aplikatuko zaio Konstituzioaren 149.1.18 artikuluan eta lehen xedapen gehigarrian eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritako moduan”.

Iragan da, luze iragan ere, Gobernuari ezarritako epea, Parlamentuari igor ziezaión Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektua, zeinaren testu bategina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1. Noizko aurreikusten du parlamentuari igortzea Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutua aldatzeko foru lege proiektua, zeinaren testu bategina abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi baitzen, 2021eko irailaren 16an onetsitako mozioa betetze aldera?

2.- Kontuan hartuz Enplegu publikoan aldi baterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian xedatutakoa, zein dira lege horren artikuluetatik Estatuko oinarrizko legeriak funtzionario publikoei onartzen dizkien funtsezko eskubide eta betebeharrak ustez ukitzen dituztenak?

3.- Zehazki: 20/2021 legearen 2.2 artikuluan ezarritako epeak, lehenbizikoa 1. apartatuan agertzen diren egonkortzeko prozesuak egituratzeko enplegu eskaintzen gainekoa, bai eta egonkortzeko prozesu berria ere, 2022ko ekainaren 1a baino lehen onetsi eta argitaratu beharko lirakekeenak, bigarrena, enplegu publikoaren eskaintzetan sartutako lanpostuak betetzeko hautapen prozesuen deialdiak argitaratzearen gainekoa, 2022ko abenduaren 31 baino lehen izan beharko litzatekeena, eta hirugarrena, hautapen prozesu horiek ebaztearen gainekoa, 2024ko abenduaren 31 baino lehen amaitu beharko lirakekeenak, Nafarroak nahitaez bete beharreko Estatuko oinarrizko legeria direla ulertzen da?

4.- 20/2021 Legearen 1. xedapen gehigarrian aurreikusitako neurriak, tokiko esparruan hartu beharreko neurriei dagokienez, Estatuko oinarriko legeria al dira edo Nafarroak, bere foru araubide dela-eta, eskumen berekiak al ditu gai horretan?

5.- Enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren

28ko 20/2021 Legeak arautzen dituen alderdietatik zeinetan ditu Nafarroak eskumen berekiak beraren araubide juridikoa arautzeko enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko gai horretan?

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Erdiz alderdiko herri-lurretan MAGNA meatze-proiektua gauzatzearen inguruko herri-galdeketa buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Baztarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Erdiz alderdiko herri-lurretan MAGNA meatze-proiektua gauzatzearen inguruko herri-galdeketa buruzkoa (10-22/PES-00122).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Iragan otsailaren 25ean, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean idazki bat sartu zen, Gobernuari zenbait agiriren berri ematen ziona, Magna merkataritza-sozietateak Baztango Erdiz alderdian egin nahi duen meatze-proiektua gauzatzearen gainera herri-galdeketa egiteko baimen-eskaera dela-eta Baztango Udalak 2022ko otsailaren 24an hartutako erabakiaren inguruan.

Hori dena ikusita, honako hau galdetu nahi dut:

1.- Legedi indardunarekin bat, Nafarroako Gobernuak 10 eguneko epea du, udal erabakia jasotzen duenetik, Estatuko Gobernuari igortzeko herri-galdeketa egiteko eskaera. Horrenbestez, hauxe jakin nahi dugu: noiz igorri zen Baztango Udalak aurkeztutako dokumentazioa, Magna merkataritza-sozietateak Baztango Erdiz alderdian egin nahi duen meatze-proiektua gauzatzearen gainera herri-galdeketa egiteko baimen-eskaerari buruzkoa?

2.- Ezezkoan, zein dira herri-galdeketa egiteko eskaera Estatuko Gobernuari ez igortzeko arrazoiak?

3.- Nafarroako Gobernuak noiz igorriko dio Estatuko Gobernuari Baztango Udalak joan den otsailaren 25ean proposatutako herri-galdeketa egiteko baimen-eskaera?

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Osasun Departamentuak osasun arloan egindako 2021eko gogobetetasun-inkestari buruzkoa.

CRISTINA IBARROLA GUILLÉN ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko apirilaren 11n egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Cristina Ibarrola Guillén andreak aurkezturiko galdera, Osasun Departamentuak osasun arloan egindako 2021eko gogobetetasun-inkestari buruzkoa (10-22/PES-00123).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen Cristina Ibarrola Guillén andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasun Departamentuak osasun arloan egindako 2021eko

gogobetetasun-inkestari buruzkoa, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak idatziz erantzun dezan:

1.- Zer prozedura erabili da inkesta esleitzeko?

2.- Aurrekontua balizko adjudikaziodun batzuei eskatu al zitzaien?

3.- Nori esleitu zaio?

4.- Nork gidatu du prozesua Osasun Departamentuan?

5.- Zer metodologia erabili da lagina hautatzeko, inkesta egiteko eta emaitzak ustiatzeko?

6.- Nork egin ditu telefono bidezko inkestak? Zenbat egin dira? Zenbat galdu dira eta zergatik?

7.- Nork eta nola ikuskatu ditu emaitzak?

8.- Nork eta nola ustiatu du informazioa?

9.- Nork prestatu du argitaratu den emaitzen txostena?

10.- Galderaren baten testua aldatu al da aurreko inkestekin alderatuta? Zein eta zergatik?

Iruñean, 2022ko apirilaren 7an

Foru parlamentaria: Cristina Ibarrola Guillén